

AZKUE, ARANA GOIRI ETA UNAMUNO

Bilbo, 1988-VII-1 ()*

Alfonso Irigoien

Badira ehun urte Bizkaiko Diputazioak euskal katedra sortu zuela Bizkaiko Institutuan kokaturik. Urrats axolazkoa eman zuen eman ere, eta modu batera edo bestera, zuzenean edo zeharka, ekarri dituen ondorioak ez dira nolanhikoak izan.

Bost izan ziren izena eman zutenak konkurso bidez ezarlekua irabazteko, horietarik hiru historian maila nabarmena irabazi dutenak, eta ez bakarrik Euskal Herrian, mundu zabalean baizik: Azkue, Arana Goiri eta Unamuno. Beste biak Pedro Alberdi eta Eustakio Madina.

Azkue-ri eman zitzaion. Mahaikoen eztabaida Azkue eta Unamunoren artean kokatu zen. Unamuno Filosofia eta letretan doktorea izanik, titulu ofiziala zuen bakarra gertatzen zen, eta lanik aurkeztatu ez bazuen ere, Madrilen ari baitzen beste oposizio batzu egiten Bizkaiko Institutuko Logika, Psikologia eta Etikaren katedra baterako, ezagunak direla bere lanak esaten da. Azkue Teologia Sakratuan batxillerra zen. Horregatik, tituluaren arauera Unamuno zen lehenen, eta hastapenean hala aipatu zen. Larrazabal eta Azillona jaunen eritziz, oster, Azkue egokiago zen katedrarako, alde batetik apezka zelako, eta bestetik, aurkeztatu zituen lanengatik, eta hala adierazi zuten izkribuz, eta botoetara jorik bigarren honek hamaika izan zituen alde, hiru kontra, eta zuri bat, eta hala erabaki zen arazoa (1). Edozein modutan ere Azkue eta Unamuno urte berean

(*) Euskal katedra sortu zeneko ehungarren urteurrenean Bizkaiko Foru Diputazioak eta Euskaltzaindiak prestatuturiko ospakizunean 1988-garreneko Uztailaren 1-ean Diputazioaren Jauregian Bilbon eginiko hitzaldia.

(1) Cfr. MANUEL LLANO GOROSTIZA, "Azcue, Unamuno, Arana Goiri y el vascuence", *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, 6-I-1957, 8-I-1957, 9-I-1957, 10-I-1957.

MANUEL BASAS, "Resurrección M." de Azcue consiguió la primera cátedra de euskera en pugna con Unamuno", *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, 5-VI-1988.

ALFONSO IRIGOYEN, "Del epistolario de Azcue", *Euskera*, II (1957), 3 eta 4, 265-266 orr. Katedraren oinarriak agertzen dira bertan.

jaiorikoak ziren eta biek Bilbon zegoen Bizkaiko Institutu berean egin zuten batxillerra (2).

Hau gertatu zen Foruen derogazioa eginik zegoela hamaika bat urte geroago Aureliano Galartza diputatu jaunak 1887-garreneko Azaroaren 8-an eskabide bat egin baitzuen Diputazioak dohaineko katedra bat sort lezan gorago aipatu den Institutuan (3). Baina katedra sortzearena Gernikako batzarretan, haiek Madrileko agintariak galeraz zitzaten baino hainbat urte lehenago, behin baino gehiagotan tratatu izan zen, eta inolako zalantzarik gabe esan daiteke Bizkaiko herrian geroago ta sendoago sentitzen zen gogo bati erantzutera datorrela.

Hona hemen Gernikako batzarren zenbait berri:

1833-garren urtean egin ziren batzarretan, lehenengo karlistada hasi zen urte berekoetan hain zuzen ere, Erregeak izendaturiko Korregidorea bere hitzaldia euskaraz eta erdaraz egiten hasi zenetik Gernikako batzarre orokorretan euskara ofizialki erabiltzea zilegi izatera etorri zen, lehenago ez baitzen: “El cual después de haberle traducido verbalmente al idioma vascongado, para completa inteligencia de los Señores que no poseyesen el habla castellana, se mandó por la Junta que se imprimiera y se distribuyeran egemplares de él a todos los Señores apoderados” (4). Beste alde batetik ez da ahaztu behar Abandoko euskaltzale perratzaileak zer edo zertxo lehenago Euskal Akademia batekin beste ezerekin baino zer ikusi gehiago zukeen zerbait sortu behar zatekeelakoa ere azaldu zuela, Gernikako batzarreek izendaturiko hogeitau lau pertsonen osatua, Aristides Artiñano-k Durangoko Euskal jaietan askozaz geroago, 1886-garren urtean, beste era batera Euskal Akademia sortzeko asmoa agertu baino lehen (5).

(2) M. GRANDE, “Estudios de bachillerato realizados por Resurrección M.ª de Azkue”, *Euskera*, VI (1961), 360-361 orr. 1881-garreneko Ekainaren 23-an iragan zituen Batxillerreko gradua hartzeko egin beharrekoak.

MIGUEL DE UNAMUNO, *Obras completas*, VIII, *Autobiografía y recuerdos*, “Recuerdos de niñez y mocedad” (1908), Madrid 1970, 131 orr. eta hurrengoak: Dio: “En el curso 1875 a 1876, teniendo yo once años, en las postrimerías de la guerra civil, ingresé en el Instituto Vizcaino”. Amaitzeari dagokionez 1879-1880 ikasturtea izan zela batxillerraren azkena esan behar da. Beraz, Azkue-k baino urte bete lehenago egin zituen ikasketak urte berean jaino baziren ere.

(3) RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE, *Euskalerrriaren yakintza-Literatura popular del País Vasco*, I, Madrid 1935, 9 orr.

(4) *Juntas Generales del M. N. y M. L. Señorío de Vizcaya, celebradas so el árbol, y en la Iglesia juradera de Sta. María de Guernica desde el día cuatro hasta el quince de julio inclusive de mil ochocientos treinta y tres*, Bilbao 1834, 13 orr.

Ikus ene “Gernikako batzarreak eta euskara” (Iruñean, bosgarren Udako Euskal Unibertsitatean 1977-VII-an irakurria), *Anaitasuna*, 15-VIII-1977, 1-IX-1977, 15-IX-1977.

(5) LINO AKESOLO, “José Pablo de Ulibarri Galindez (1775-1847); actualidad de su obra”, *Euskera*, XXI (1976), 170 orr. eta hurrengoak.

Katedrarena 1841-garren urteko batzarretan aipatzen da: “Resolvió asimismo la junta, por igual indicación, que al ponerse en planta, en virtud de lo acordado en la precitada sesión del 2, el Instituto científico de segunda enseñanza, cuidase la Diputación general de que se establezca en él una cátedra de lengua vascongada (6).

1864-garrenekoetan berriz tratatzen da euskal katedra sortzeaz eta baita maisuek euskaraz jakiteaz ere, —kontuan izan behar da garaitu horretan eztabaida bat garatu zela Madrilekoekin kanpotik Euskal Herrira maisu erdaldunak bidaltzen hasi baitziren 1857-ko irakaskuntza publikoko lege berria oinarri harturik (7)—: “Igualmente dióse cuenta de otra moción suscrita por varios Señores apoderados que a la letra dice así: ILLMO. SR.—Los apoderados que suscriben proponen a la Junta general se sirva acordar que la Illma. Diputación proceda inmediatamente al establecimiento de una cátedra de Lengua Vascongada en el Colegio de Vizcaya, a fin de secundar eficazmente los patrióticos esfuerzos del P. Fr. José de Uriarte, de D. Pedro Novia de Salcedo y de otros doctos vascongados que trabajan por el mantenimiento y la perfección de nuestra lengua materna, teniendo sin duda muy presente el **axioma de que allí donde concluye la lengua de los pueblos concluye su nacionalidad**. So el árbol de Guernica a 25 de julio de 1864.—Illmo. Sr.—Alejandro Rodríguez.—Angel María de Ventadas.—Juan Antonio de Menchaca”. “Y acordó la Junta que dicha moción se remitiera a la Diputación general para su resolución, y a propuesta de un señor apoderado resolvió también un voto de gracias en favor del R. P. Fr. José de Uriarte, por los estudios que ha hecho de este lenguaje y servicios prestados con tal motivo” (8). **El axioma de que allí donde concluye la lengua de los pueblos concluye su nacionalidad** beltzez markatu dugu, Arana Goiri oraindik jaiotzeko zegoela printzipio nazionalista dei dezakegun hori formulatzen baita Gernikako batzarretan.

JOSE PAULO ULIBARRI GALINDEZ, *Gutunliburua* (esku izkribu faksimilez argitaratua), Gasteizen 1975. Ikus bertan datorren “Bibliografía” eta Aita Lino Akesolo-ren aurkeztatzea.

D. ARÍSTIDES DE ARTIÑANO y ZURICALDAY, *Proyecto de Academia Bascongada*, Barcelona 1886, 35 orr. (Premiado en las Fiestas Eúskaras de Durango, en 1886).

(6) 57 orr. eta hurrengoak. 1952-garrenekoetan, 72-73 orr., lehenengo irakaskuntzako eskola normalaren ardura ere eman nahi zaio Institutuari.

(7) Kontuan izan behar da 1857-garren urtean Madrilen irakaskuntza publikoaz lege berri bat egin zutela —ley de instrucción pública de fecha 9 de septiembre de 1857—, eta haren kontrako mugimendu bat sortu zela Gernikako batzarretan, gai horretan Diputazioen eta Udalen bete beharrak murrizturik gelditzen baitziren. Hain zuzen ere 1860-garren urteko batzarretan, 90-91 orr., lege hori honela hartzen da: “como contraria a las atribuciones que las diputaciones y ayuntamientos constantemente han gozado tocante a la inspección y vigilancia de este importante ramo, al nombramiento de profesores y señaladamente de su dotación”.

(8) 150 eta 151 orr.

Ikusten denez katedraren asmoa ez zen 1888-garren urterarte bete, Foruak galdu eta gerorarte, dudarik gabe garai hartako gerra eta gertakariakatik.

Azkue-k berak dioenez, *Grankanton arrantzaleak* izan zen aurkeztatu zuen euskarazko lana, eta *Algunas reglas gramaticales* “edo onelabait” (9). Katedra irabazi eta berehala, 1891-garren urtean, *Euskal izkindea - Gramática euskara* argitaratu zuen euskaraz eta erdaraz, geroagoko lanetan autoreak berak gaztetako bekatutzat aitortuko zuena. Dodgson-ek *Azcuenze* deituko zion Azkue-ren lehenengo bide honi. Izan ere hizkuntza zeharo logiko bat bultzatu nahi zuen eta *izan* berboaren presentea, konparazio baterako, *nai, ai, dai, gaiz, zaiz, daiz*, egiten du, *naiz, haiz, da, gara, zara, dira* formen ordeztu, eta, beste alderdi batetik, *daut, gauz, zauz, zautaz*, eta abar, *dut, gaitu, zaitu, zaitut*, eta abar, formen ordeztu, normalak direla, ordea, *nau, aut, au*, eta abar, bere logikaren oinarria horietan hartzen baitu. Egia esateko Bizkaiko itsasaldetik barrura *nai* forma *nas* edo *naiz*-en ordeztu, ezaguna da, bakarra ez bada ere, eta hor har zezakeen oinarri jatorrizko forma zela uste izateko eta bere buruan baino kokatzen ez zen alegiazko logika zaharra goitik behera flexio-jokoetan berregiteko, eta horixe berbera egin zuen *edun* berboarenetan ere. Ez zen konturatzeko asko erabiltzen diren flexio-jokoak ez direla normalki edozein hizkuntzatan erregularitasun hestukoak, eta berrienak, ostera, erregularra-goak direla. Hor dituzue, adibidez, oso berriak diren *leiket, leikezu, leike*, eta abar, Gipuzkoako Goierri ere oso gazteen artean zabaltzen ari direnak *leike* oinarri harturik, eta *ez neike, zeinke, leike*. Edozein modutan ere *nai* forma **nadi* batetik letorke, agian aoristoko laguntzailea bestearekin nahasirik, oraindik hainbatek Bizkaiko leku batzutan *etorriko litzateke* perifrasiaren ordeztu *etorriko leiteke*, eta abar, esan izan duten bezala,

(9) IKUS RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE, *Euskalerraren yakintza-Literatura popular del País Vasco*, I, Madrid 1935, 7 orr.: ‘Gaztetan nintzan (ogei urte or or bainituen) Seminarioko ikastarondoko opor-egunetan, astiune batzuetan beintzat, erriaren agotik ipuin ta irakurgai bat edo beste ikasten ari izan nintzanean. Orduan ikasitako irakurgai bat, laubost urte geroago, lantto bat egiteko erabili nuen. Bizkaiko Aldundiak, Bilboko Institutuan euskerazko irakaskuntza sortu nairik, batzaldi bat iragarri zuen, irakasle izan nai zutenak berak egindako zerbait erakutsi zezatela eskatuz. Bi lan txume agertu nituen nik: euskerazkoa bat, bestea erderazkoa. Lenengoari izentzat *Grankanton arrantzaleak* ezarri nion eta Lekeition urte batzuk lenago ikasitako irakurgai bat izan zan (Uri artako itsastarren arrantzatoki edo kala urrutiko baten izena da *Grankanto*). Bigarrena *Algunas reglas gramaticales* edo onelabait izendatu nuen. Orain (arri zaiz, irakurle): Parisko *Bibliothèque Nationale* deritzaien Liburutegi aundian dautza bata ta bestea, E. S. Dodgson-ek nire eskuetatik artu ta neronek enekiela ara eramanak. Arritasun ori yoango zaitzu, irakurle, Oxford-ko Bosleyren Liburutegian arkitu nituen paper batzuen berri yakin dezazunean. Lan onetan ari naizen onen eta Campion eta beste euskalariren baten postal batzuk, len aipaturiko euskalazale ingelesak utziak, ikusi nituen nik an. Bizkaiko Aldundiaren orduko asmoa gora andikoa izan zan euskera zarrari indar berriak zainetartzeko. Orduan asi ginan Arana Goiri ta ni, ateko aldeari bizkarra emanez, barrura begira, nola edo ala lanari ekin ta ekin. Irakurleak atseginez ikusiko dutela uste dut gure Aldundiak artarako erein zuen lenengo azia”.

lehenengoa ere ezagutuarren, edo *etorri jakon* esan beharrean, Leioa eta inguruetan *etorri ekion* esan izan den bezala, azkenengo hau Lizarraga Elkanokoaren erara, hark *etorri zekio* baitarabil *etorri zitzaion* zentzuan, *etor zekio(n)* perifrasiak modu indikatiboan zuen iraganeko aoristo zentzua galdu baitzuen (10). Beste alderdi batetik *elemento inquirido* delakoaren gaia ere hor azaltzen da eta geroago Altube-ren eskutik segida izan zuen (11).

Azkue-ren bideari Dodgson-ek *Azcience* deitu ziola esan dugu, eta euskarara moldatuz gero ere balio du, zeren modu horretera *Azkuera* edo *Azkuera* esan behar bailizateke, *euskera* edo *euskara* hitzekin jokoia eginik. Arana Goiri-rena *euzkera* zen, hau da, z-rekin, *eguzki* hitzarekin zer ikusirik bagenduela asmatu zuenetik aurrera, eta bide hori maisuak baino urrunago eraman zuten Arriandiaga-k eta geroago *Euskaltzale bazkuna*-ren inguruan ari izan zirenek, eta ez zuten Bizkaian bakarrik izan eragina, Bizkaitik kanpo ere bai. Kirikiño-ren moduko batzu eragin guztiak gora behera ez zuten herriko euskara fresko eta indartsuaren kutsurik galdu, ordea. Horretara baldin bazen, alderdi batetik *Azkuera*, eta besterik *euzkera*, z-rekin, edo Arana Goiri-ren eskola baziren, eta orain-tsuago hori adierazteko *hyper-hitz* bat sortu izan da, hau da, *hiperbizkaiera*.

Baina *Azkuera* oso gutxi iraun zuen, *Euskal izkindeak* iraun zuen beste, zeren Azkue-k bere hiztegi nagusia egiterakoan beste bide bat hartu baitzuen askozaz ere zabalagoa, garaiko purismoa zeharo gainditu ez bazuen ere, beste askok ere Euskal Herriko hegoaldean Bizkaia baino eremu zabalagoan zeharo gainditu ez zuen bezala. Hiztegiaren hitzau-eremua izenik gabe aipatzen da Dodgson-ena (12). Edozein modutan ere Azkue-k Bizkaiko euskara dotorean idazten zuen hitzaldi labur honetan aipatuko ez ditugun bere lan ugarietan, Gipuzkera osotuaren teoria oinarri harturik *Prontuario de la lengua vasca* eta *Ardi galdua* elaberria argita-

(10) Edward Spencer Dodgson izan zen *azcience* hitza zabaldu zuena, cfr. Julio de Urquijo, "Vascófilos ingleses", *RIEV*, XXV (1934), 201-224 orr., Dodgson-i dagokiona 211 orr. eta hurrengoetan dator.

Azkue-k berak ere aipatzen du bere Morfologian: "Tal demolición intentó el autor de estas líneas en aquella su *Euskal-izkindea*, ¿y no recuerdas, lector, el chiste dogsoniano de *Ascience*? El uso de *gorria*, *eskua* y *besoa* es hoy ya corriente, aunque el que así las escriba se valga, al hablar con los suyos, de las variantes que le son familiares. El lector las acepta asimismo. La propuesta de esas flexiones *daut*, *dauk*, *daun*, *daugu*... etcétera, como de uso exclusivo en lo futuro, es sí, empresa fácil; pero la aceptación por parte del pueblo la juzgo imposible y hasta contraproducente, pues en vez de destruir una Babel daría lugar a la formación de dos, o por lo menos a hacer más confusa la primera", cfr. Resurrección María de Azkue, *Morfología vasca*, Bilbao 1925, § 932, 691 orr.

(11) Cfr. *Euskal izkindea*, op. cit., 334-345 orr.

ALFONSO IRIGOYEN, "Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak", *Euskera*, XXV (1980), 325 orr. eta hurrengoak.

(12) RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE, *Diccionario vasco-español-francés*, II tom., Bilbao 1905-1906, "III. Del enemigo el consejo", I tom., IX orr.

ra zituen arte (13), hain zuzen ere Euskaltzaindia sortzerakoan. Harrezke-ro bere euskara batuaren bidetik ibili zen, batez ere busti-palatalen grafia kontuan, jarraitzeko guti izan bazuen ere bere ingurukoan artean, gipuzkoar izanik ere, zeren politika arazoak mundu abertzalean Arana Goiri-ren bidetik zihoztenez gero, haren joerak nagusitzen baitziren, eta horretan ez baitzeturten bat. Baina gerra ondoko euskara batuan grafia horri dagokionean Azkue-ren bidea gelditu da, eta Nazario Oleaga-k horrezaz zuen eritzi finkoa baliozko gertatu zen, zeharka bederen, eta beste alde batetik batez ere Lapurdiko euskal literatura oparo purismoaren bidean sartu gabekoa horren alde zegoen (14).

Unamuno-k bere lehenengo denboretan lotura handia izan zuen euskal munduarekin. Bere doktoradutzako tesia ere bide horretarik abiatu zen: *Critica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca* (leída en Madrid el día 20 de junio de 1884). Gauzaren bat edo beste, hala nola *zillar*, 'plata', hitzaz dioena, eskozes, aleman, goto, eta ingelesarekin, *-silver-*, konparatzen duela, geroago ere ontzat hartu izan da konparatisten artean, Tovar, Mitxelena, eta abarren artean, esaterako (15).

(13) RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE, *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular*, Bilbao 1917, bigarren edizioa 1932.

R. M.^a AZKUE, *Ardi galdua*, Bilbon 1918.

(14) Cfr. ALFONSO IRIGOYEN, "Ene eritzia zenbait euskaltzain eta laguntzailek firmaturikako gutun urriko batzarrean tratatuko denaz eta ene erabaki proposamendua", *Euskera*, XXII (1977), 208-213 orr.

Joan, jan eta halakoak *j-* grafiaz oraingo erara ematea, Euskal Herri osoa gogoan izanik, Azkue-k bultzatu zuen, halako jokabidea hartu baitzuen hiztegi nagusirako, geroago *yoan, yan* eta abar, erabili bazituen ere euskara batuaren izenean, seguru asko euskaldunak ahoskatze zaharrera bultzatzeko asmoz, cfr. Alfonso Irigoien, "J grafiaren problematikaz egungo eguneko egoera", *Euskera*, XXIX (1984), 595-598 orr., eta baita ere "Jota grafiaz, noiz *j* eta noiz *i*?", *De re philologica linguae uasconicae*, II, Bilbao 1987, 229-302 orr. Edozein modutan ere *Ardi galdua*-n oraindik *joan*, eta abar, *j-* grafiaz ematen ditu euskara batuaren izenean eginik agertzen bada ere. Gauza bera gertatzen da *Prontuario de la lengua vasca* delakoan, zeren 1917-garreneko edizioan *joan, jan*, eta abar, *j-* grafiadunak irakurtzen badira ere, 1932-garrenekoan *yoan, yan* eta abar, *y-* grekoz agertzen baitira, edizio berria zerbaiska zuzendua izateaz gainera. Azkenengo honetan, gainera, Arana Goiri-ren bidetik zabal korritzen zuten *x* eta *tx* ere ontzat hartzen ditu, eta baita, *rr* bikoitzaren ordez, egungo eguneko bazterturik dagoen *í* gangarduna ere. Aldaketok Euskaltzaindiko **Euskera** aldizkaria agertzen hasten den momentu berean egiten ditu, cfr. 1919-1920, I-ko urtea, II-n zenbakia, 1921-garreneko agertua, eta Sebero Altube-ren Euskaltzaindiko sarrera hitzaldiari Bizkaiko euskaraz, ez bestela, egin zion erantzunean ere *yoan*, eta abar, darabiltza, Altube-k ez bezala, cfr. 1920-1921, II-garren urtea, I-ko zenbakia.

Arana Goiri-k 1896-garren urtean argitara zuen *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino* delakoan, *Obras completas*, 810-982 orr., Bizkaiko euskararako *j-* grafia proposatzen du, hala nola, "jauregija (el palacio)", Markina-ko eskolako autoreen arauera, baina, gainera, maiuskula denean ere goiko puntua ipinirik, 858 orr. Gipuzkoakorako ordea, grafia berbera goiko punturik gabe bultzatu nahi du, bai maiuskula denean, eta bai ez denean, erdarazko *j* bezalatsuko ahoskatze guturala dela kausa, 855-857 orr.

(15) MIGUEL DE UNAMUNO, *Obras completas*, IV, *La raza y la lengua*, Madrid 1968.

Handik laster lan baliotsu bat argitara zuen *Revista de Vizcaya* delakoan: “Del elemento alienígena en el idioma vasco”, 1886, I, n.º 8, Otsailaren 15-a, 259-269 orr., eta 1886, I, n.º 9, Martxoaren 1-a, 295-305 orr., eta ondorik “¿Vasco o basco?”, 1886, I, n.º 11, Apirilaren 1-a, 399-404 orr. (Uztailaren 1-ean, hiru hilabete geroago, Arana Goiri-k aldizkari berean “Etimologías sueltas ¿Vasco o basco?” argitara zuen, eta *Obras completas* delakoan dioenez, 31 orr., 1885-garren urteko Abenduan idatzi zuen, eta bere lehenengoetariko lana da, eta edozein modutan ere argitaratzen duen lehenengo) (16).

Unamuno-k “Vasco o basco” delakoa argitara zuen numero berean Tomás Escriche y Mieg, Bilboko Institutuan irakasle zenak artikulua bat argitara zuen “El vascuence” tituluaren azpian, 392-398 orr., lehenengoak “Del elemento alienígena en el idioma vasco” delakoan esan zituen zenbait eritzi, mailegu delakoekin ikustekorik ez zutenak kritikatu eta euskararen bizitzaren alde agertuz. Hala dio: “Dijérase mañana al pueblo vasco que era dueño de dejar el castellano y usar como lengua oficial y exclusiva la suya propia, y este sólo acto voluntario de un gobierno (acto más o menos político, no discuto éso) bastaría para asegurar una gran vitalidad al vascuence, a pesar del incesante roce con los forasteros. Probablemente entonces llegaría a estar de moda su cultivo y la minoría de personas acomodadas que hoy lo desprecian y hacen alarde de olvidarlo, se apresurarían a estudiarlo y recordarlo con empeño”. “Sólo una respuesta entiendo que podría dar a ésto el Sr. Unamuno: ‘no queremos’, o ‘no quieren’ si es que personalmente deseaba él sustraerse del número de los indiferentes”.

Unamuno-k hurrengo numeroan erantzun zion, Apirilaren 15-ekoan, 422-426 orr., “Más sobre el vascuence” lanarekin, eta Maiatzaren 1-ean “Algunas palabras más sobre el vascuence” delakoarekin Escriche-k, 11-20 orr. Garaitsu horretan “El Sitio”-n hiru hitzaldi egin zituen, hirugarrena, argitara eman den bakarra, 1887-garreneko Urtarrilaren 3-an “Espíritu de la raza vasca” titulua zuela. Edozein modutan ere euskaraz eginiko oso gutxi zuen Unamuno-k eta katedraren konkursoko urte berean Gernikako arbolari zuzenduriko lan labur bezain ezaguna argitara zuen gure hizkuntzan (17). Orduko giroaren adierazgarri dira lan guzti hauek.

(16) *Obras completas de Arana Goiri'tarr Sabin (Sabino de Arana Goiri)*, Buenos Aires, 1965.

(17) Cfr. *Euskal-Erria*, XIX (1888), 299-300 orr.: “¡Agur, arbola bedeinkatube!”. Neure artikulua baten notan nuen osorik, cfr. Alfonso Irigoien, “Bilbo eta euskara”, *Euskera*, XXII (1977), (33) nota, 408 orr. Ikus hemen darabiltzagun arazoez 400 orr. eta hurrengoak ere.

Gai hauezaz ikus baita ere ene artikulua “Gorputz eta soin hitzez eta abar”, *Euskera*, XXI (1976), 77 orr. eta hurrengoak.

Arana Goiri-k ere bazuen prestaturik, berak dioenez, 76 orr., artikulua bat Unamuno-ren “Del elemento alienígena en el idioma vasco” lanari erantzunik, baina dirudienez ez zen argitara eman, eta ezagutu ere ez da ezagutzen. Edozein modutan ere aipaturiko Unamuno-ren lanak bere eragina izan zuen *sensu contrario*, zeren kasu batzutan Arana Goiri-k neologismoak sortu baitzituen euskaldun guztiek edo gehienek erabiltzen zituzten eta dituzten hitz arrunten orde, hala nola, *elixa = txadon (etxe-deun)*, 1063 orr., *zeru = donoki (deun-oki)*, 1062 orr., *pamilija = sendi (sendi)*, 1063 orr., *salbau = gaizkatu (gaitz-ga-tu)*, 1062 orr., *[arraza] = abenda (aba-enda)*, 1061 orr., *pekatari = obendi (oben-di)*, 1014 orr., *mundu = ludi (lurr-di)*, 1063 orr., *koroe = burestun (buru-estun)*, 1014 orr., eta abar, eta abar. Baina *mutatis mutandis* Larramendi-k ere halako bideak korritu izan zituen lehenago, *megope* erdarazko ‘espíritu’ adierazteko erabiltzea proposatu baitzuen (18), eta abar, eta abar, Ifarraldekoen artean XVI-garren mendeko hastapenetik beretik gertatzen ez zen erara. *Hyper* preposizio grekoaz baliatu behar baldin badugu, *hypereuskara* delakoaren iturriak denboran urrunago bilatu behar dira. Edozein modutan ere Arana Goiri-ren hitz bat edo beste problemarik gabe zabaldu izan da. Esaterako, egungo egunean *euskalki* hitza normalki erabiltzen da. Gogora ekarri behar da, ordea, Arana Goiri-k *euzkelgi* proposatu zuela, 1062 orr., eta formaren aldetik zerbait aldatu bada ere hitz berbera dela (19).

Hain zuzen ere Arana Goiri-k Azkue-ri eginiko karta autografo baten, hark egungo egunean inolako kezkarik gabe euskal hitz modura hartzen dugun *koroe / koroi* formarako *buruntzi* erabili omen baitzuen, —gorago ikusi dugunez Arana Goiri-k *burestun* du—, bere eritzia ematen dio. Karta hori Federiko Krutwig-en eskuetan dago, Azkue-k eman baitzion, eta orainarte ez da sekula argitara agertu. Berari esker osorik irakurtzen dizuet orain, jatorrizko letra begien aurrean dudala, eta kopiatuak doa ondoren:

“[En la cabecera a la izquierda hay dibujada, utilizando la pluma con que fue escrita la carta, una bicrucifera, la cual simboliza una *ikurriña*].

”Sukarrieta 28-V-900.

”Sr. D. Resurrección M.^a de Azkue, Pbro., Bilbao.

”Mi buen amigo: En el himno que ha escrito V. para la Coronación de la Virgen de Begoña y que publica *El Noticiero* de hoy, he visto

(18) Cfr. PADRE MANUEL DE LARRAMENDI, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuense y latín*, tomo bi, San Sebastián 1745.

(19) Eguzkitza euskaltzainak artikulua bat egin zuen “*Euskalki* ala *euskalgi*?” tituluduna Euskaltzaindia sortu eta berehala, *euskalgi* hobetzat harturik, cfr. 1919-1920, I-ko urtea, II-n zenbakia, 38-44 orr. Hala ere egungo egunean besteak korritzen du.

empleada la palabra *buruntzi* por *corona*, y advierte V. en nota ser usual dicho vocablo. Esto último, este hecho, no lo dudo desde el momento que V. lo asegura; pero bien sabe V. que no nos debe bastar el simple hecho material de usarse una voz, para aceptarla como legítima, quiero decir, como auténtica. Es preciso estudiar y saber cómo se usa y por quiénes, y aun después de ésto, examinarla en sí misma. También se usa, por ejemplo, *txismistargi* por *luz eléctrica* y aun por *electricidad* (como si ésta fuera *luz*); pero sería imperdonable admitiéramos una voz tan risible, inventada, sin duda, en algún rato de ocio y buen humor, por algún *txistulari* ó *bertsolari* aficionado á gramática é inspirado por la sidra ó el chacolí.

”El vocablo *buruntzi* ha sido indudablemente compuesto de *buru-ontzi*; pero con bien poca gracia para el pobre euzkera. Lo que *buru-ontzi* podría significar (y así y todo á *duras penas*) es el casco ó capacete guerrero. Y digo á *duras penas*, porque *ontzi* ó *untzi* siempre y esencialmente lleva expresa la idea de *recipiente*, *receptáculo*, *continente*, como *vaso* en español y *vaisseau* en francés, por lo que *ontzi* y *vaisseau* y *vaso* significan á la vez *navio* y *vasija*. De mí sé decir que nunca aceptaría como buena la voz *buru-ontzi* para significar *casco guerrero*, mucho menos *corona*, porque ni ésta ni aquél son *continentes* de la cabeza, sino todo lo contrario. Apurándolo mucho, podría pasar el término en cuestión para expresar el *cráneo* (que ya tiene su nombre y no necesita otro), que es un recipiente que pertenece á la cabeza y está en ella (*burubaren ontzi*, *buruko ontzi*); y acaso también, y apurándolo más, para significar el *cerebro* mismo, que es el vaso fisiológico de la cabeza: pero, la verdad sea dicha, ni en uno ni en otro caso sería rigurosamente aceptable el vocablo á que me refiero, porque ni el *cráneo* ni el *cerebro* contienen la *cabeza*, sino todo lo contrario: son *burubaren ontzi* y *buruko ontzi*, pero no *burudun ontzi*.

”El hallar tan consciente é inconsideradamente formado el vocablo *buruntzi*, nos puede convencer de que no es usual con el uso que hace auténticas las voces, con el uso vulgar y corriente del euzkera, uso que, como puramente inconsciente é instintivo, resulta siempre acertado en sus productos, así en lo morfológico como en lo ideológico. Seguramente, la voz *buruntzi* ha pasado de algún libro ó de algún púlpito á la parte de vulgo que lo use: y ya tratándose de invenciones, precisa someterlas á riguroso examen antes de recibirlas y registrarlas como buenas.

”Me ha movido á hacer á V. las observaciones que preceden el haber visto el vocablo *buruntzi* por *corona* en un himno que, por su letra y su música, y por el grande acontecimiento que ha de conmemorar, está llamado á extenderse por el país y hacerse popular en considerable porción del pueblo vasko [sic.]. He cumplido con mi deber de patriota al escribir á V. la presente por el bien de la lengua de mi raza, y creo

firmemente de V., hará lo que á su juicio sea más conveniente para la misma.

”Ordene V. á su amigo y servidor en Jel.

”A. eta G.’ttarr Sabin.

”P.D. No tengo inconveniente dé V. á la publicidad estas líneas, si lo juzga oportuno.”

Arazo hau, *burestun* edo *buruntzi*, nola esan behar den euskaraz erdarazko *corona*, ez dugu gehiago egungo egunean eztabaidatzen, *koroe* / *koroi* euskal hitz modura hartzen baitugu, jatorriz erdaratikoa bada ere. Izan ere, Unamuno-ren “Del elemento alienígena en el idioma vasco” delakoa, *mutatis mutandis*, oraingoagoa iruditzen zaigu egun. Eztabaidatzen den hitzari dagokiola geroago Azkue-k, bere 1905-1906-ko hiztegian, *buruntzi*, ‘aro superior de un cesto’ zentzuan bilduko du Gernika, Ipazter, Lekeitio, Markina, Ondarroa, eta Bizkaitik kanpoko Gaintza-n arrunt erabiltzen dela esanik, eta Oiartzun-en zentzu berean *buruntzaki* aldagarria. Erdarazko *corona* adierazteko “por extensión” erabili omen zuen (20).

Hiru gizon erraldoi hauen arteko harremanak edukiozko giro baten barruan mugitzen baziren ere elkarren lehian eta bakoitzak bere lekua eta zebilen eremua zaindurik ziren beti.

Unamuno geroago Salamanca-ra joango zen eta lehenengo garaietan Bilbo-rekin harreman hestua izan bazituen ere, luzera, kilometro askotara eta beste giro baten bizi baitzen, geroago eta gehiago urrundu zen euskal munduko gauzetarik, grina zeharo aldendu ez bazitzaion ere.

Hiru pertsona handi hauek Bilborekin eta Euskal Herri osoarekin lotura sendoak izan dituzte, bertan eragin handia sorturik, eta gainera hiru gizon tiporen eredu dira, oraindik ere nolabait irauten dutenak.

(20) **Euskera** aldizkarian, II (1957), 261-393 orr., “Del epistolario de Azkue” titulupean beste karta askoren artean Sabino Arana Goiri-ren bat ere argitara eman nuen, hain zuzen ere estalkiaren barruan gordetzen zen bakarra, eta estalkian, Azkue-ren eskuz izkribaturik, omen zeudenen berri ere bai. Bertan ematen da hemen argitara den kartaren berri ere: “2.^a Sukarrieta 28, V, 1900. Una larga carta y razonable acerca del vocablo *buruntzi* que significando corona introduce en mi recién publicada poesía a N.^a S.^a de Begoña”, 324-325 orr.

Euzkerea aldizkarian, IX (1935), Orrilla-Bagilla, 525-527 orr., “Páginas del maestro. Temas euzkeralógicos”, tituluaren azpian Arana Goiri-k Azkue-ri Hendaia-ra zuzenduriko beste karta bat argitaratzen da. “Sukarrieta, 2-VI-1900” du leku eta egunaren seinalagarri. Azkue-k aurreko 31-an egin zionaren erantzuna da, hala baitio bertan. Beraz, horren arauera, goian argitara eman denari Azkue-k 31-an erantzuten dio, eta Arana Goiri-k egun bi geroago, Hendaia-ra izkribaturik, *buruntzi* hitzaz berriz egiten dio berba, “puesto que de evolución ideológica se trata, y no de creación de formas”. Azkenengoaren berririk batere ez da agertzen gorago aipatu den estalkian, eta badirudi **Euzkerea** aldizkariak argitara eman zuenaren iturria ez dela Azkue-ren artxiboa.

Horregatik joan den Abenduan hirurei Bilbon katedra honen ehungarren urteko ospakizunen inguruan monumentu bat egin behar litzaikeela proposatu nuen, eta erraturik ez baldin banabil, talde batek Udalari eskabidea egin ondoren, asmoa aurrera joan daiteke. Biz aukera hau elkarren arteko harremanen lagungarri eta orainarteko elkartu ezinen lagungarri. Ailedi Euskal Herria arrazoiean oinarrituriko harreman sendoetan murgil Europako zelai zabalean gaudela, eta Krutwig-ek lehen-goan zioetan bezala: *ὁμόνοια*, hau da, konkordia.

Hala biz.